

# 1951 Erretaula



Lekeitioko Andra Mari eliza ezaguna bada erretaula-erengatik da batik bat. *Ande o no ande caballo grande*, lekeitiarrak erretaula eraldoia alltxatu zuten, adituen araberaz Oviédokoarekin batera Toledo eta Sebillakoaren ostean Espainiako handiena.

Tamaina kolosal hori da, herria hain umila izanik, jendea harritu izan eta harrizten duena. Horregatik errepasotxo emango diogu erretaularen gainean idatziz zenari, hasteko. Gero, berri txar horien harira (ikus 153. or.), ikusirik ospea eta aintza guztiak ez zirela nahikoak izan erretaularen mantenturako, mantentze barik artelanak hondatu egiten baitira, historian zehar erretaula kontserbatzeko zer egin zen iker-tzen ahalegindu gara.

## Ande o no ande

Lehen aipamena, nola ez, *Deskribapen anonimoan* (1737-40) aurkitu dugu<sup>1</sup>. Autoreak erretaula zelako ederra den zioskun, Granadako eta Sebillako erretaulen parekoa edo hobea, baina ez zuen beste ezer esaten. Iturriza izan zen, Lekeitioko artxiboa antolatuz zuena, egilearen, dataren eta kostuaren gaineko informazioa emango ziguna. 1799ko *Historia de Vizcaya* eskuizkribuan zioskun Juan Garcia Crisalek erreztatu zuela 1510ean hasi eta hurrengo urteetan eta 18.545 erreál eta 15 mrs. kostatu zuela: *"... vello retablo en el altar mayor con una multitud de estatuas de Santos y Misterios de la Pasión del Señor; fue dorado el año de 1510 y siguientes por Juan Garcia del Crisal y costó 18.545 reales, y 15 mrs, contribuyeron a su gasto Juan de Madarieta y su mujer segun consta de la inscripcion que esta a la banda de la epistola"*. Bestalde, Deskribapen anonimoari gehitu zizkion oharren artean erretaula 1502aldean egin zela idatzi zuen (*El retablo maior se construyo hacia el año 1502*). Badirudi Iturrizak nolabait erretaularen lan eskultorikoa eta urrez-tazea antzeman zituela, 1502 eta 1510eko datak bereiztean.

<sup>1</sup> "El retablo maior dorado es de obra gotica filigranada, en la parte superior en medio esta nra. Señora de la Asumpcion, y en todos los demas nichos multiplicidad de bultos, que representan diferentes pasos desde el nazimiento de nuestro Señor hasta su resurreccion, y otros de nra. Señora, todas sus columnas por ambas partes estan llenas de santos de la primitiva Yglesia, y de Patriarchas, y Profetas, es de la mesma calidad, y mejor, que el de la Yglesia Patriarchal de la ciudad de Sevilla, y como el zelebrado de la Cappilla real de los señores reies Catholicos en Granada, es de inmemorial, assi con el tiempo se a desluzido mucho, y se le an caído algunas piezas de lo filigranado, y tiene gran nezzesidad de limpiar, y componerle; a la parte de la epistola avia un letrero de letra antiquissima, que dezia que Juan de Madarieta y su muger avian dado cantidad de maravedis, para dorarle se borro dicho letrero, quando se hizo el presbiterio jaspeado, o su subida al altar, que fué el año mil setezientos (sic) y dos".

Atzetik etorri zirenak Iturrizak esandakoa errepi-katu baino ez zuten egin harik eta Cavanillesek 1857an zertxobait zehaztu zuen arte<sup>2</sup>. Hala ere, ez zen Cavanilles zuzenbilibi ez urreztatze gastuekin, ez erretaula Avileseko elizarako aurreikusitako zela baina zozkatu ondoren Le-keitiora etorri zela esatean. Berrogeita hamar urte beranduago, 1907an, Elias Tormo etorri zen Lekeitiara eta orduan ikusitakoak 1910ean argitaratu zituen *"Recuerdos de una excursión"* lan-

txoan. Eskarmentu handiko gizona, goiz bakarra nahikoa izan zuen ordura arte esandakoa hobetzeko edo behintzat beste begirada batekin ikusteko. Jakina, ez zuen dokumentatziarik kontsultatzeko astirik izan, Cavanillesek idatzita-koa baino ez<sup>3</sup>.

Beranduxeago Juan Irigoyen artxibozainak ekin zion gaiari, honek bai dokumentazioa erabiliz. *Excelsior* egun-garian, 1926-3-18an idatzi zuen artikuluan Garcia Crisali bu-ruzko xehetasunak ikertu eta erakutsi zituen<sup>4</sup>. 1949an argi-taratu ez zen beste lan bat idatzi zuen erretaulari buruzkoa. Datu interesgarriak agertu zituen, esaterako 1516an hil zela Juan Garcia Crisal, baina erretaularen kostu edo prezioare-kin nahastu zen<sup>5</sup>.

<sup>2</sup> Cavanillesek lanaren kostua zehaztu zuen baina urreztatze sailean erratu zen. "El retablo del altar mayor es muy notable por su dibujo y la delicadeza con que está ejecutado. Lo construyó en 1510 Juan García Crial (sic), por 610.235 maravedises á los que se agregaron 20.310 importe de la madera. Costó dorarle 18.545 maravedises. Representa en seis medallones sucesos de la vida de la Virgen, tiene varios santos, y en el centro la Asunción de Nuestra Señora. He oído que este retablo se hizo al mismo tiempo que el de la iglesia de Avilés, que se sortearon y tocó á Lequeitio el que estaba destinado para Asturias".

<sup>3</sup> Besteak beste zera zioen: "Y que es considerable el trabajado para Lequeitio, bien lo dice el precio; pues el retablo mayor de Toledo en toda su escultura importante (obra de Copin y Sebastián Almonacid) —dejando á cuenta aparte las tallas arquitectónicas de Peti Juan y tantos otros— importó por los mismos años una cantidad de 610.000 maravedises, igual á la suma total del retablo de Lequeitio, y ¡cuidado si vale la escultura del toledano inmenso! El merito de la obra de Lequeitio es también muy grande, y mucho siento no haberla estu-diado con aquella detención y prolijidad á que me hubiera arrastrado el conocimiento de la noticia documental, pues de una manera más vaga se examinan las obras de arte del todo anónimas, y de otro modo, con excepcional interés, las que nos revelan, como el retablo de Lequeitio, á uno de los ignorados y grandes escultores españoles de aquella hermosísima escuela hispano-flamenca é hispano-rhiniana que tuvo en Burgos su principal, pero no ciertamente su único asiento en la Peninsula".

<sup>4</sup> Hasta ahora figura el famoso Juan García Crisal cobrando 630.545 mrs. por su obra del retablo, que se dice terminada en 1511. Labayru le llama García del Crisal y asegura haber leído en el libro de fábrica la carta de pago o su testimonio. Ballesteros y el P. Félix L. del Vallado le llaman Joan García Crisal.

(...) En 1516 parece haberse terminado el retablo, y el mismo maestro atiende ahora a la obra del coro... En el finiquito de cuenta de año firma el maestro un recibo con el nombre "Maestre García Cristales". ¿García Crisal, García Crisal o García Cristales? La transcripción dudosa del apellido, los nombres de sus familiares Perris y Chordón, su significación artística, permiten suponer que el maestro García Cristales era borgoñón o flamenco, bretón quizá, de los que llegaron a España en tiempo de los RR. CC. ofreciendo sus servicios a cabildos e iglesias, en plena fiebre de decorar y elevar los monumentos artísticos que hoy admiran.

<sup>5</sup> Juan Irigoienek ez zuen bere begiekin ikusi 630.545 marabeditako ordain gutuna eta antza, Santo Tomasen eskolakoa zen. Argitaratu ez zen lan horretan, Urkizak erakus-ten digu, oraindik azken hondar-ordainketa guztizko ordainketarekin nahasten zuela. 1530ean familiak kobratu zituen 12.234 marabediak, Irigoyenek erratua pentsatu zuen erretaularen guztizko balio izan zela. Lekeitioko Andra Maria elizeko lehenengo Fabrika liburuan ageri da 3. orrian erretaularen kostua:

Paresçe que fue averiguado y esaminado por nuestros pintores sobre juramento que vale el retablo fecho en la dicha iglesia de nuestra Señora por el dicho Garcia de Cristal maestre

Alkate historiazaleak ere izan ditugu. Bruno Larrazabal alkate ohiak *El Pueblo Vasco* egunkarian 1933-8-20an *Retablo y portada de la Basilica de Lequeitio* artikuluan zera zioen: *"Contratada su ejecución con Juan Garcia Crisal, el año de 1508, se terminó el año 1511 y su coste fue de 630.545 maravedises o sea 18.545 reales y quince maravedises (Carta de pago obrante en archivo parroquial)"*. 1966an Francisco Ocamicak, alkate zela, *La villa de Lequeitio* liburuan urte bat aurreratu zuen erretaularen amaiera, 1510<sup>6</sup>.

1985ean parroko ohiari tokatu zitzaion txanda. Vicente Urquizak lan polita burutu zuen, Lekeitioko elizaren gaine-ko ordura arteko ikerketarik sakonena duda barik. *Iglesia parroquial de Santa Maria de Lekeitio* liburuan hainbat gai aztertu zituen euren artean erretaularena. Bere ustez 1507 eta 1512 artean burutu zen lana<sup>7</sup>. Tira errepasotxo luza-tzen ari da, 1996an erretaula, kontuz, *spoilerra*, konpondu egin zen eta horren berri emateko Jose Angel Barrio Lozak 1997-3-26an hitzaldi bat eman zuen. Orduan esanda-koak dira gaur egun egiazat edo behintzat egiantzeko-tzat ditugunak.

*El 15 de diciembre de 1514, ahora justamente 482 años, terminaba la obra del retablo mayor de Lekeitio con el acta de evaluación (630.545 maravedíes en total) que unos pintores extendieron sobre la policromía del mismo.*

---

seis cientos e diez mylle e dozentos e treinta e cinco maravedis= 610.235  
Item, fue averiguado y esaminado toda la cimbria e tabla puesto por el dicho Garcia en el dicho retablo, veynte mil e treientos e diez maravedis =20.310  
Asy suma todo lo que la iglesia debe al dicho maestre Garcia, seyscientos e treinta myll e quinientos e quarenta e zинco maravedis = 630.545

Eta berriro agertzen da 1530eko ordain-karta horretan: "... conoscieron aver rescibido de Martin Garcia de Loniquiz, mayordomo de la fabrica de nuestra señora Santa Maria de esta Villa que presente estaba, los doze mil e dozentos e quarenta e tres maravedias que la dicha fabrica les devia del resto para entero pago del prescio de los seiscientos e treinta mil e quinientos e quarenta e cinco maravedis en que fue esaminado que valga el retablo...".

Akordu horretara heldu ziren baina, askotan legez, lehenago drogan eginda. 1530eko kontu liburuetan (LUA, R 53) seme Francisco Crisal eta Udalaren arteko auziaren gaineko gastuak ageri dira, (adib. 87v). Cleto batxilerrarekin ere auzia izan zuen urte be-reen (pleito ejecutivo) eta hurrengo urtean 12 dukat eta 6 erreál ordaindu behar izan zion Udalak, baina zer dela eta? Portzierto, Vicente Urquiza nahastuta zebilen, Francis-co Crisal maestra eta Cleto abad de Lariz batxilerra anaiek ziren. Francisco Crisalek gu-rean jarraitu zuen eta badakigu esaterako altara nagusirako angeru batzuk egin zituela.

<sup>6</sup> La villa de Lequeitio, Francisco Ocamica, 1966 "En la nave central se encuentra el extraordinario retablo, obra de Juan Garcia de Crisal, que lo realizó por la cuantía de 610.235 maravedises (aproximadamente 4.887 pesetas). Su estilo arquitectónico es gó-tico tardío o flamenco. Lo terminó en 1510. Esta formado por 16 motivos que repre-sentan escenas de la vida de la Virgen y de Nuestro Señor. En el centro, la imagen de la Asunción de Nuestra Señora, e inmediatamente debajo de ella, una imagen sedente de la Virgen...".

<sup>7</sup> Iglesia parroquial de Santa María de Lekeitio, Vicente Urquiza, 2ª ed., Mientras el Sr. Irigoyen, en su precedente estudio dice que "su labra, se inicia el año 1511 para terminarlo el año de 1516", el Sr. Iturriza anota que se construyó hacia el año 1502". Otro tercero, el Sr Ocamica en su libro "La Villa de Lequeitio", pone que su autor "lo terminó el año 1510".

Nosotros creemos, más bien, que su labra se inició hacia el año 1507 para terminarlo el año 1512.

*Concluía así una historia comenzada 12 o 14 años atrás, cuando los vecinos emprendían una audaz aventura, mucho más propia de sede catedralicia castellana que de feligresía modesta asomada al Cantábrico. La construcción del tercer retablo gótico esculpido de mayor tamaño de todo el Estado, exequo con el de Oviedo y menor que los de Sevilla y Toledo...*

Barrio Loza historialariak erretaularen eraikitze pro-zesuan arkitektura (mazonería) eta eskultura eta horien urreztatzea bereiztu zituen. Bere ustez lehena 1500 eta 1505 bueltan burutu zen eta urrestatzea beranduxeago 1507 eta 1512 artean. Beraz, hala nola, Iturrizaren 1502ko hasiera data eta Vicente Urkizaren kalkulak uztartu zi-tuen. Ezaguna zen Juan Garcia Crisal maisua izan zela "pintatzeaz" arduratu zena baina nor edo nortzuk izan zi-ren eskultura eta arkitektura landu zituztenak? Bat-batean Juan Garcia Cristalek egindako eta 630.545 marabeditan balioztatutako lana, urreztatze zatiari baino ez zegokion. Oviédon gastatu zena kontuan izanda frogatu zuen Barrio Lozak, 630.545 marabediekin justu-justuan urreztatu ahal izan zela Lekeitioko erretaula.

Arkitektura lanak, Barrio Lozaren ustez, Palencia eta Burgos aldeko talleren batekoa zirudien eta beharbada eskulturak ere bai. Estiloz hispano-flandiarra da, Behe Rhin-Mosa aldekoa agian baina egilea ezezaguna zenez, Lekeitioko maisua deitu zion. Jakina, erretaularen tamain-ak artisauro gehiagoren parte hartzea eskatu zuen, sei, zazpi artisau-marka ageri dira eskulturetan.

Amaitzeko, Jesús Muñiz Petralandaren liburua aipatu behar dugu, Lekeitioko erlijio-ondarearen gida. Honen us-tez, arkitekturak (mazoneriak) eta polikromiak eskultura gainditzten dute: *"Pertsona ezberdinen esku-hartze honen emaitza ikusgarria da. Dena dela, onartu beharra dago arkitektura konplexua eta luxuzko polikromia eskulturen gain-etik nabarmentzen direla, azken horiek irregularragoak baitira"*. Bestalde, ez du zorutzen Lekeitioko maisuaren kalitateak eta Ama Birjinaren lokartzea, beste artista ba-tek egina, du gustukoena: *"Bere egileari dagokienez, es-zena gehienak antzeko ezaugarri formalak dituzte -oso espresibitate mugatua eta karakterizazio aniztasun eskasa dituen komposizio zurruna- eta horregatik esan genezake Lekeitioko maisu izendatu dugun eskultore anonimo batek egin zituela. Lokartzea, kalitate handienekoa ezbairik gabe eta tipo eta jarrera ezberdinengatik nabarmentzen dena, ez da berea"*.


Tesia kaleratzear dabil Jesus, zer esango duen zain ge-ratzen gara.

+ inf. [www.retablosdebizkaia.com/lekeitio](http://www.retablosdebizkaia.com/lekeitio)



Garcia de Crisal maisuaren sinadura, 1511 aldean

- 1 San Joakinen eskaintza errefusatzea
- 2 Mariaren jaiotza
- 3 Ama Birjinaren jauretxeko aurkezpena
- 4 Deikundea
- 6 Ikustaldia Santa Isabeli
- 7 Jaiotza
- 8 Artzainei berria adieraztea
- 9 Artzainen jauresaldia
- 10 Epifania
- 11 Zirkunzisia
- 12 Jauretxeko aurkezpena
- 13 Errugabeen hilketa
- 14 Jesus doktoleen artean
- 15 Kristo hilari buruzko erosta
- 16 Jesusen berpizkundea
- 17 Ama Birjinaren lokartzea
- 18 Ama Birjinaren zeruratzea
- 19 Andra Mari
- 20 San Migel Goiaingerua
- 21 San Gabriel Goiaingerua
- 22 Aingeru musikariak
- 23 Eleizaren Alegoria
- 24 Sinagogaren Alegoria
- 25 David erregea (2)
- 26 Beste errege batzuk
- 27 Moises
- 28 Beste profeta batzuk
- 29 San Pedro
- 30 San Pablo
- 31 San Juan Ebangelaria (2)
- 32 San Jeronimo
- 33 San Gregorio Handia?
- 34 Beste Eliz Guraso Batzuk
- 35 San Martin Gotzaina?
- 36 San Roke
- 37 San Juan Bataiatzailea
- 38 San Bizente
- 39 San Esteban
- 40 San Antonio Abadea?
- 41 San Kosme
- 42 San Damian
- 43 Beste santu batzuk (gizonezkoak)
- 44 Alejandriako Santa Katalina
- 45 Santa Barbara
- 46 Santa Maria Magdalena
- 47 Santa Marta
- 48 Antiokiako Santa Margarita
- 49 Santa Ursula
- 50 Santa Luzia
- 51 Santa Ines
- 52 Beste santu batzuk (emakumezkoak)





### El uno por el otro y la casa sin barrer

Urreak distira dezan lantzean behin mustuka eta trapua pasatu behar zaio eta hautsa kendu..., are gehiago urre hori filigrana konplexu eta zirrikituz betetako eskultura eszenak estali eta dotoretzeko erabili bada. Eta zer esanik ez, erretaulak halako tamaina kolosala duenean! Egin, egin zen baina mantendu egin behar zen eta ez zen lan erraza, ez. Ezta lan horren gaineko aipamenak aurkitzea ere. Hemen dihoazkizue lar sakondu barik aurkitu ditudan aipamen batzuk.

Lehen Sebillatik datorkigu. Martin Otxoa Urkiza lekeitiarra, Sebillako Kontratazio etxeko kontadore nagusia, hiltzeak zegoen eta testamentua eman zuen 1603an. Diru handiak eginda bere jaioterra saritu nahi zuen. Jakingo dugu erretaula, ederra bere esanetan (*muy sumptuoso*), egoera eskasean zegoela eta hura garbitzeko eta mantentzeko dirua utzi zuen<sup>1</sup> baina bere emaztea zen Antonia Zamudioren esku utzi zuen agindua. Antonia eta lekeitiarrak ondo konpontzen ez zirenez, ez genuen espero beteiko zuenik senarraren asmoa baina erratuta nenbilen. Nola hala, auziak tarteko, lekeitiarrak Urkizatarren diruarekin erretaula garbitzea lortu zuten gutxienez 1632, 45 eta 72 aldean<sup>2</sup>.

Irakurri duzu -oharrak jo eta paso egiten duenatarikoa ez bazara behintzat- Deskribapen anonimoaren sasoiari, 1740 aldean, hondatuta eta konponketa eta garbiketa beharrean zegoela. Hondatu eta konpondu, zikindu eta garbitu, amaiera bako zikloa zen. Kontuan izan, garbitzeko zein konpontzeko aldamiok etab. behar zirela, a zelako kristoa! eta elizak ez zuen sekula oporrik hartzen, 365/365.

1 LUA, R31 D01 28v Otxoa Urkiza kontadorearen testamentuko karitateko obren artean: Iten, digo, que por quanto en la Iglesia mayor de la villa de Lequeitio donde yo nací, ay un retablo en el Altar mayor, muy sumptuoso, y por algunas causas, ó falta de dineros, ó descuido, ó otra razón, parece que no se ha limpiado, ni despolvoreado mucho ha, á cuya causa necesariamente estara maltratado. Quiero, y es mi voluntad, que luego que se ayan pagado las dichas mis deudas, la dicha doña Antonia, como patrona que es de las obras pias, quando mejor le pareciere, haga limpiar y despolvorear el dicho retablo. Y si le pareciere dexar obligado al dicho mi patronazgo, le obligue, de tantos en tantos años, se limpie el dicho retablo á costa del dicho mi patronazgo, y que se pongan cortinas en el, y quando se rompieren, se tornen a poner de nuevo, como ella lo dispusiere, y ordenare, á quien se lo remito.

2 AHEB-BEHA 7. Fabrika liburua, 30r, (1632 alde): "Yten a Martin de Galdona pintor por obras que hizo en el retablo del altar/ mayor cinquenta reales como consta por libranca de los dos cauillos y su/ carta de pago".

AHEB-BEHA 7. Fabrika liburua, 99r (1645): "Yten sesenta reales que dio el padre rector del colegio de la compania de Juan de Bilbao patrón unico/ de las memorias que dixo en esta villa el contador Ochoa de Urquiza natural que fue de ella para ayudar/ a limpiar el retablo de la yglesia parrochial Santa Maria de esta villa".

"Yten ubo en el diezmo del bino ciento y quarenta radas las treinta y dos de ellas en dos pipas que dieron/ a Martin de Galdona pintor por orden de anbos cauillos para en quenta de limpiar el retablo/ que rrebatidos de los 140 quedan 108 radas los quales como mostro por menor hicieron mill trecientos/ y beinte y siete reales como lo dio a satisfacion de los senores contador y anbos cauillos".

LUA, R34 D01, 43r: "Yten 460 reales que se dieron a Nicolas de Oxinaga pintor vezino desta villa para que limpe (sic) el retablo del altar mayor en que fue concertado por el patrón..."

LUA, R34 D01, 51r: "Yten treientos reales que dio el dicho patrón para limpiar el retablo mayor e son además de los quatrocientos e sesenta reales que se dieron a nicolas de ossinaga pintor por no poder el dicho pintor limpiar el dicho retablo por ser negocio que requería mayor suma..."

LUA, R34 D01, 156r (1739): "Yten 602 reales que costaron unas cortinas nuevas de mitan negro que se an echo para el retablo maior de la Yglesia Parrochial de esta villa y se hizieron de alto avajo con 14 piezas de dicho mitan a 43 reales pieza".

Velos de Pasión deituak, dolu seinale ziren eta Garizuman hasi eta Pasko loratu egunera arte elizak ilunean, tristuran mantentzen zuten. Ikaragarri ederrak kontratatzatzen dira Gaztelako herri batzuetan (Rejas de San Esteban, Burgo de Osma, San Eutropio del Espinar).

1848an, zehazki 1848-5-18ko udalbatzarrean, Teresa Ibarlucea Iturrasppek testamentuan Elizarako utzitako diru zati bat erretaularen konponketan erabiltzea erabaki zen (... *tomaron en consideración la urgente necesidad que tenia de limpiar, charolar y reformar el retablo antiguo del altar mayor*). Antza, 2.000 erreale gastatu ziren. Hurrengo konponketa, Paskual Abaroaren diruarekin egin zen. Prentsari irakurri dugu 1884ko zaharberritzean erretaula ere konpondu zela: "Muy señor mio: Las obras de la iglesia tocan ya á su termino; el retablo ha quedado maravilloso, el tabernáculo sorprendente, el órgano hermosísimo y el pórtico sin par... todo, en una palabra, es allí grandioso" (*El Noticiero Bilbaino*, 1884-8-6), baina sitsak ere ez du oporrik hartzen.

1931an Monumentu Nazional izendatu zuten eliza. Hala ere, izendapen horrek ez zuen erretaularen egoera hobetu, antza. Urteak urteak dira, zaharra zen ordurako erretaula eta sitza haren etsai nagusia. Garbitasuna ondo dago baina *Xiladecorra* hobeto.

1949an Bastida arkitektoak eta Juan Irigoyenek aztertu ondoren sitsaren kontrako tratamendua aholkatu zuten baina, antza, ez zen ezer egin. 1950ean zerbait egin nahian zebiltzan<sup>3</sup> baina ez dirudi ezer egin zenik 1951an *La Gaceta del Norte* egunkarian (1951-3-31) Jr. Zuloaga kazetariak erretaularen egoera tamalgarria salatu baitzuen, *Al retablo de Lequeitio se le puede aplicar el ya conocido refrán: "El uno por el otro y la casa sin barrer"*. Handik gutxira, 1960an, Miguel Angel Astiz kazetariak, kontixu Antiguako amaren koronazioaren gertutasuna aprobetxatuz, berriro salatu zuen haren egoera. Titulua irakurtzea baino ez dago: *Está en peligro de destrucción total el maravilloso retablo gótico de Lequeitio*.

Ezer egin zen? Gutxi eta ezerez artekoa, 1975ean *El Correo* egunkariko tituluak zera zioen eta: **MONUMENTO NACIONAL EN LAMENTABLE ESTADO Se esta desprendiendo a pedazos**. Artikulu honetan esaten denak ondo islatzen du garaia eta auziaren iltzea, *Don Dinero: "Hace años, siendo ministro de información, el señor Sánchez Belia, se extasió ante este retablo. Cuando todos pensaban que mandaría "plata", lo que mando fue un equipo de fotografos para hacer una foto que sirviera de felicitación navideña"*.

1978-79an Gustavo Kraemer Koeller-ek zuzenduta eta herritarrek lagunduta zaharberritu zen erretaula (*El Correo Español*, 1979-8-1). Urtebete pasatxo luzatu zen lana eta milioi bat pezeta kostatu zuen. Ez dakit fundamentutzko lana izan zen, zeren eta 1996. urtean, Iberdrola enpresak ordainduta, *Equipo 7 Restauración* taldeak berriro zaharberritu zuen erretaula. Hau bai hau, lan bikaina eta erudugarria izan zen.

3 LUA/Udal Aktak, 1950-6-15

El Sr. Secretario de la Excm. Diputación provincial, remitió con fecha 20 de Mayo último un presupuesto para la desinsectación de la Iglesia de Santa María de Lequeitio por un importe de nueve mil pesetas... El Señor Alcalde manifiesta que el presupuesto en cuestión que como se indica es para efectuar la desinsectación de la Iglesia Parroquial de esta Villa se debe a las gestiones por él realizadas ante la Diputación a fin de evitar la destrucción total por la polilla del famoso retablo del Altar Mayor y que se propague a las demás instalaciones. Según se desprende de la comunicación recibida, la Diputación parece dispuesta a hacer el trabajo por su cuenta, pero con la ayuda del Ayuntamiento y la Iglesia, al efecto, el Sr. Párroco está conforme a abonar un tercio del importe.

